

Neurriak murriztu osteko lehen festak «ederki» igaro dira

Tolosako Berazubi auzoko jaiak ospatu dituzte asteburu luzean; azken eguna paela erraldoia dastatuz borobildu dute auzotarrek // **5**



Leire Alonsok irabazi zuen toka txapelketa, atzo goizean. JOSU ARTUTXA

Iñigo Merkaderrek irabazi du Mikel Lizartzaren aurkakoa

Tolosarra lasterka azkarragoa izan den arren, segan hernaniarra hobeto aritu da; Lizartzak 2.981,50 kilo pilatu ditu eta 3.017 Merkaderrek, apustuan jarritako 3.000 euroak irabaziz // **7**

Tolosako kirol instalazioen kudeaketaren lizitazioa hasi du udalak

Datorren urtean bukatuko da indarrean dagoen kontratua; hamar urterako esleituko da, eta ordutegiak zabalduko dituela esan du udalak // **2**

Nahia Garrido igerilariak Mediterraneoko Kopan parte hartuko du

Tolosaldea IKT-ko igerilaria 100 eta 200 metro bizkar probetan ariko da; berarekin batera joango da Joseba Zubeldia entrenatzailea // **6**



Helduen krosean 153 parte hartzaile izan dira, eta gaztetxoetan, 202. IRATI SAIZAR

Ekain Larreak eta Usoa Ostolazak irabazi dute Tolosako Herri Krosa

153 parte hartzaile izan ditu San Esteban auzo elkarteak antolatzen duen lasterketak; haurren lasterketan 202 parte hartzaile izan dira, eta saharar kanpalekuetara bidaltzeko materiala bildu dute // **4**

ORIA

BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com

Udalak kirol zerbitzuen lizitazioa jarri du martxan

Kirol instalazioen kudeaketa integralerako kontratuak hamar urteko iraupena izango du; ordutegiak zabaltzea aurreikusi du udalak

Erredakzioa

Datorren urtean amaituko da Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen kontratua, eta hori dela eta, zerbitzu horiek berriz ere kontratatzeko lizitazioa martxan jarri du udalak.

2005ean zabaldu zituen bere ateak Usabalgo Kirol ekipamenduak. Denbora honetan, ia azpiegiturarik erabiliena bilakatu dela kiroldegia esan dute udalek. «Hainbat instalazio berri sortu dira eta beste batzuk handitu edo hobetu: rokodromoa, solariuma, skate-parkea edota futbol zelaia, kasu». Hala, «kudeaketa bateratuagoa, eraginkorragoa eta integralagoa bultzatzeko», 2013an Berazubi estadioa eta 2017an Beotibar frontoia batu zituzten Usabal kiroldegia kudeatzeko zerbitzu kontratura. Pandemiaren ondorioz, zerbitzuak kontratatzeko lizitazioa luzatu zuen udalak, eta datorren urtean



Kirol instalazioen ordutegia luzatzea aurreikusten du lizitazioak, astegunetan nahiz jai egunetan. ATARIA

amaituko da indarrean dagoen kontratua.

Aldaketa ugari izan dituen eta «konplexutasun handia» duen kontratazioa da kirol instalazioena, eta horregatik, lizitazio berriari hasiera eman aurretik, hainbat azterketa egin dituzte; tartean, beste herrietako ereduaren azterketa eta konparaketa, eta zerbitzua udalarena izateko

aukeraren azterketa. Orain arteko zerbitzuaren balorazioa ere egin dute, eta herritarrek positiboki baloratu dutela jasotako zerbitzua esan dute udalek.

Ondorio guztiak kontuan izanda, «eraginkortasun printzipioari eusteko eta herritarrei zerbitzurik egokiena bermatzeko» instalazioen kudeaketa osorako zerbitzua kontratatzea erabaki

du udal gobernuak eta azken osoko bilkuran onartu zuten lizitazioari hasiera ematea. Beraz, dagoeneko enpresek aurkeztu ditzakete beren proposamenak.

HAMAR URTERAKO

Kontratuaren iraupenak eragin zuzena du inbertsioak egiteko gaitasunean eta horregatik, azterketa ekonomikoak egin ondo-

ren, kontratu berria hamar urterako izatea zehaztu dute, enpresa esleipendunak azpiegiturak egoera onean mantentzeko inbertsioak egiteko gaitasuna izan dezan. Instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuaren emakidaren aurreikusitako balioa 4.570.531,22 eurokoa da; urteko ustiapen aurrekontua 2 milioi ingurukoa izango dela aurreikusten da, eta kontratuaren barruan, instalazioak mantentzeko, berritzeko eta hobetzeko inbertsioak egingo dira, 1.730.000 euroko aurrekontuarekin.

Modu honetara, kirol instalazioak egoerarik onenean mantendu nahi ditu udalak, herritarrei eskainitako zerbitzuak eta azpiegiturak egokiak eta kalitatezkoak izan daitezen. Zerbitzuak hobetzen jarraitzeko helburuarekin, hainbat hobekuntza ere txertatu ditu lizitazioan, bereziki ordutegiari lotuta, zabaldu egingo baita: astean zehar 07:00etatik 22:00etara eta jaiegunetan 08:00etatik 14:00etara egongo dira irekita kirol instalazioak.

Orain arte bezala, udalak instalazioen erreserba egin ahal izango du udal zerbitzu publikoak eta herriko taldeen jarduerak bermatzeko. Langileei dagokienez, langileria subrogatu beharko du enpresa esleipendunak. Langile guztiek bete beharreko baldintzetako bat euskaraz hitz egiteko gai izatea da; arduradunek, gainera, EGA titulua edo baliokidea izan beharko dute.

Ospitalearen eraikuntzarako urrats bat gehiago eman dute

Erredakzioa

Azken osoko bilkuran aho batez onartu zuten eskualdeko ospitale publikoaren eraikuntzarako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrearen aldaketa puntuala egitea. Modu honetan, Tolosako Udalak esan du urratsak ematen jarraitzen duela ospitale publikoa eraikitzeko.

2020an hasi zen udala titularitasun publikoko ospitale berria eraikitzeko kokapenak aztertzen. Azterketa horrek bi fase izan ditu, guztira 13 eremu aztertu dituzte eta «irisgarritasun, mugikortasun eta bizilagunen ganako eraginak kontuan izanda» ondorioztatu dute suhiltzaile etxe pareko kamioi aparkalekua dela eremurik egokiena ospitale berria kokatzeko.

2009tik indarrean dagoen HAPoan ez dago aurreikusita eremu horretan ospitalerik eraikitzea eta horregatik izan da beharrezkoa Plan Orokorrean aldaketa egitea. Era berean, legeak ezartzen du beharrezkoa dela herritarren partaidetza bermatzeko eta horretarako partaidetza programa garatu dute. Hala, talde eragilea osatuko dute inplikaturako erakundeen parte hartzearekin: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Foru Aldundia eta Tolosako Udalak eta bi saio ireki egingo dituzte herritarrekin.

Lehena, dokumentua osatu aurretik egingo dute, diagnosa egin eta egon daitezkeen aukerak aztertu eta herritarren ekarpenak jasotzeko. Ondoren, informazioa jaso ostean, dokumentua herritarrekin partekatuko

dute. Eta azkenik, osoko bilkuran onartu beharko da.

«Eskumenak erakunde ezberdinen artekoak direnean, elkarlana ezinbestekoa da, horregatik Eusko Jaurlaritzarekin hartu-eman estuan gabiltza lanean eta horregatik, parte hartuko du Osasun Sailak HAPoaren aldaketaren prozesuan» adierazi du Egoitz Soroabab hirigintza saileko zinegotziak. Bestalde, zehaztu du Osasun Saila orain ari dela Plan Funtzionala egiten eta azterketa horrek zehaztuko dituela ospitaleak izango dituen zerbitzuak. «Pausoak ematen joan ahala argitu, zehaztu eta bideratuko dira hainbat gai; orain arte bezala Tolosako Udalak eman beharreko pausoak eman ditu eta emango ditu ospitale publikoaren eraikuntzarako».

Kultur etxeko proiektuaren idazketa esleitu du udalak

Erredakzioa

Tolosako udal gobernuak aurreko legealdian eraikin sozio-kulturaleri buruzko azterketa egin zuen, azpiegituren eta bertan eskaintzen diren zerbitzuen inguruko informazio zehatza izateko, eta horiek hobetzeko lan larroak eta proiektuak zehazteko, herritarrei eskainitako zerbitzua hobetzen jarraitzeko helburuz. Azterketan atzeman zuten kultur etxeko egungo espazioa zaharkituta eta gain-okupatuta dagoela, eta irisgarritasun baldintzak ez daudela bermatuta. Hori dela eta, kultur etxea eraberritzeko proiektua abiarazi du aurten udalak, etorkizunean udal liburutegia bertan kokatu dadin.

Estudio Beldarrain SLP enpresari esleitu zaio proiektuaren idazketa, 57.153,60 euroan. Enpresak hamar hilabete izango ditu proiektua garatzeko, eta kultur etxea eraberritzeko eta liburutegi berria bertan kokatzeko proposamena landu beharko du.

Bestalde, eraikinen inguruko azterketa egin zenean, herritarrek egin zituzten proposamenak eta horiei erantzutea du helburu proiektuak. Fase berri honetan ere tolosarrek parte hartzeko aukera izango dute. Bi saio ireki egingo dituzte eta baita elkarriketak ere, hausnarketak egin eta proposamenak jasotzeko, eta, azkenik, hirugarren saioa egingo dute proiektua erakutsi eta azken ekarpenak jasotzeko.

Aurrekontu parte hartzaileak jarriko ditu martxan Irurako Udalak

Aurrekontuko 30.000 euro gorde ditu udalak herritarren proposamenekin erabiltzeko; proiektuak urriaren 15era arte aurkeztu ahalko dira, eta ondoren bozketa egingo dute

Erredakzioa Irura

Irurako Udalak aurrekontuko 30.000 euro erreserbatu ditu herritarrek egindako proposamenekin inbertsioak egiteko. Proposamenak urriaren 15era arte aurkeztu ahal izango dira eta hautatutako proiektuen artean herritarrek erabakiko dute zein gauzatu.

Proiektuek irurarren interes orokorrari erantzun beharko diotela jakinarazi du udalak. «Ondo justifikatutako proiektuek askoz aukera handiagoa izango dute herrikideen botoa eta babesa lortzeko». Iruran errolatuta dagoen eta 16 urte bete dituen edozein herritarrek, edota errolatuta ez egon arren, bertan jardueraren bat garatzen duen pertsonak egin ditzake proposamenak. Udaleko harrera bulegoan aurkeztuta (09:00-14:00), Irurako udalaren webgunean *online* formularioa beteta, Irurako aplikazioaren parte hartze atalean formularioa beteta, eta Kulturunean jarriko den postontzian aurkeztu ahalko dira proposamenak.

Proposamenak Irurako Udaleria bidali ostean, tekniko eta talde politikoen ordezkariak osatutako mahai batek proiektu bakoitzaz aztertu eta balorazioa egingo du. Proposamenei oniritzia emateko interes publikoari erantzutea, udalaren konpetentzia izatea, teknikoki bideragarria izatea, aurreikusitako diru kopuruarekin bateragarria izatea edota inbertsio motako proposamena izatea hartuko da kontuan. Hala, oniritzia jasotzen duten proiektuak botazio fasera igaroko dira.



Irurarren interes orokorrari erantzun beharko diote proiektuek. JON MIRANDA

teko interes publikoari erantzutea, udalaren konpetentzia izatea, teknikoki bideragarria izatea, aurreikusitako diru kopuruarekin bateragarria izatea edota inbertsio motako proposamena izatea hartuko da kontuan. Hala, oniritzia jasotzen duten proiektuak botazio fasera igaroko dira.

BOZKETA HERRITARREK

Emaitzak publiko egin eta gero herritarrek proiektuen inguruko informazioa jasoko dute, eta bozka bidez bat aukeratu beharko dute. Bozketako emaitzak lortzeak izango dira udalarentzat,

beraz, boto gehien lortzen dituen proiektua exekutatu beharko da derrigor.

Azaroaren 8tik 12ra bozkatu ahalko da, udaletxean, udalaren webgunean, Irurako aplikazioaren parte hartze atalean edota Kultureneko postontzian.

Udalak prozesu honekin helburu ezberdinak lortu nahi ditu: «Herritar konprometituak sortzea bere komunitatean, gardentasuna, lehenatasunak markatzea, aniztasun inklusiboa, talde eta komunitate ikuspegia, erabakiak hobetzea, zilegitasuna bermatzea eta harreman molde berriak sortzea».

Mendiarekin lotutako jarduerak beteko dute urria

Hitzaldiak eta dokumentalak izango dira; eskualdeko mendietara igotzeko erronka ere egingo dute gazte eta helduen artean

Erredakzioa Irura

Irurako Udalak urrian herrian izango diren aisialdirako ekitaldien berri eman du. Nabarmen-tzekoak *Mendiaren hilabetea* izenburupean Irura Bizi elkarteak antolatutakoak, dokumentalak, elkarrizketak, hitzaldiak nahiz mendi erronkak izango dituztelarik irurarrek.

Mendiaren hilabetea-ri *Mendian hil*, *hirian hil* dokumentalarekin emango diote hasiera. Oroitzapenaren eta itxaropenaren gaineko dokumentala da, eskolako gela borobilean izango da ikusgai urriaren 19an 19:00etan, eta ondoren, Inaki Peña zuzendariarekin solasaldia izango da.

Urriaren 21ean Iker Karrera mendi korrikalariari buruzko *Bidea Ipar* liburua aurkeztuko dute Iker Karrera berak eta Unai Ugartemendia idazleak, 19:00etan gela borobilean.

Urriaren 26an Aitziber Ibarbia lasterkari zizurkildarrarekin elkarrizketa izango da, eskolako gela borobilean, 19:30ean hasita. Urriaren 28an, berriz, Jokin Lizeaga mendi korrikalariaren *Sufri-mendua ala gozamina* hitzaldia izango da, gela borobilean, 19:00etan.

Ekitaldiak euskaraz izango dira, eta parte hartzeko gonbidapenak beharko dira, beraz, udalarekin jarri beharko da harremanetan aldeaz aurretik.

MENDIERRONKA

Mendiaren hilabetea-ren barruan Irura Bizi elkarteak Irura Bizi I. Mendi Erronka ere antolatu du. Adin tarte guztietako herritarrek parte hartu ahalko dute, eta azaroaren 30era bitarte burutuko da. Helburua da bi hilabeteko epean, eskualdeko mendi kopuru bat igotzea. Hernio, Ipulioño, Loatzo, Mendikute, Murgil, Otsabio, Txindoki, Txurro, Uzturre eta Zarateko haitzak dira igo beharreko eskualdeko mendiak. 14 urte artekoek guxtienez hiru igo beharko dituzte, eta 14tik gorako herritarrek guxtienez bost tontor egin beharko dituzte.

Irura Bizi elkartetik esan duteenez, mendizaleatasuna sustatzea eta eskualdeko mendiak ezagutztea da erronkarekin lortu nahi dutena. Mendi bakoitzera igotakoan, parte hartzaileek argazkia egin beharko dute, eta ondoren norbere datuekin (izen-abizenak, adina, helbidea, mendiaren izena eta mendira igotako data) *irurabizi@gmail.com* helbidera bidali. Argazkiak banakakoak izan beharko dutela esan dute elkartetik. Gainera, saria jasotzeko aukera ere izango da. Hain justu, kirol denda batean gastatzeko 50 euroko bi bono zozketatuko dituzte parte hartzaile guztien artean, 14 urte bitartekoan artean bat, eta 14 urtetik gorakoan artean bestea.

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



Maite
Galarraga
Larrarte



Mila esker. Plazer bat
izan da zurekin herrigintza
partekatzea.
Zure irria, gure bidelagun
euskal preso guztiak
etxeratu arte.

IRURAKO EZKER ABERTZALEA



IRURAN, 2021eko urriaren 13a

Ekain Larrea eta Usoa Ostolaza izan dira azkarrenak korrika

33. Tolosako Herri Krosak 153 parte hartzaile izan ditu helduen kategorian, eta haurretan 202 parte hartzaile animatu dira; saharar kanpalekuetarako materiala ere bildu dute

Irati Saizar Artola Tolosa

San Esteban auzo elkarteak antolatzen du urtero Tolosako Herri Krosa. Atzo goizean, giro ederrarekin egin zuten lasterketa 165 korrikalarik; helmugara 153 parte hartzaile iritsi ziren. 11:00etan abiatu ziren San Esteban auzotik, eta leku berean izan zuten helmuga 8,1 kilometroren ondoren.

Denetan azkarrena Ekain Larrea Aranguren antzuolarra izan zen, 25.48ko denborarekin; bigarren postuan, Joseba Olaetxea Amenabar tolosarra helmugaratu zen 25.56ko denboran; eta jarraian, 27.03ko denbora eginez, Iker Manso Blazquez tolosarrak gurutzatu zuen helmugako marra.

Emakumeetan, berriz, Usoa Ostolaza Zabala leitzarra izan zen helmugaratzen lehena, 30.10eko denborarekin; berehala izan zuen atzetik Izaro Rubio Lasa ordiziarra 30.19rekin; podiuma osatzen hirugarrena Izaro Perurena tolosarra izan zen, 30.52ko denbora eginda.

Lehen lasterkari tolosarrak Izaro Perurena eta Iker Manso izan ziren.

TXIKIENAK ERE KORRIKA

Helduen lasterketaren ostean etorri zen haurren txanda, Txiki krosarekin. Bi proba prestatu zituzten: 6 eta 8 urte artekoentzat 500 metroko ibilbidea, eta 8 eta 14 urte artekoentzat 1.250 metrokoa. Umore ederrean egin zituzten bi ibilbideak gaztetxoek. Denera, 202 haurrek hartu zuten parte.

Aurten, berrikuntza gisa, helburu solidarioa izan du txikien lasterketak. Parte hartu dutenek, dortsala hartzerakoan, eskolako materiala utzi dute bueltan. Bildutako material hori Tolosaldea Sahararekin elkartak jaso du, Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara eramateko. Parte hartzaile guztiek, haur nahiz helduek, kamiseta bana jaso zuten. Eta lasterketan zehar, lagun izan zuten Estebania auzoko erraldoia.



8 eta 14 urte artekoek 1.250 metroko lasterketa egin zuten. I. S. A.



Estebania erraldoiak haurrekin batera egin zuten lasterka. I. S. A.



Ekain Larrea Aranguren Antzuolarra iritsi da aurrena helmugara. I. S. A.



Ezkerrean, Izaro Perurena, lasterketako lehen tolosarra. I. S. A.



Lasterketa amaieran umorerik ez zitzairen falta izan askori. I. S. A.



Usoa Ostolaza Zabala leitzarra izan da lehena emakumeetan. I. S. A.

Krosaren ondoren, festa gosea asetzera

Ttontor kultur elkarteak antolatuta, XXXIII. Kultur Astea ospatzen ari dira San Esteban auzoan; igandera bitarte, askotariko egitaraua prestatu dute

Josu Artutxa Dorronsoro

Azken urteetan, geroz eta gehiago dira Tolosan festak antolatzen dituzten auzoak. San Estebanen, ordea, hiru hamarkada baino gehiago daramatzate auzoa girotzen, eta beraz, zentzu honetan, beteranoenetakoak dira esan daiteke. Pasa den igandeaz geroztik, XXXIII. Kultur Astea ospatzen ari dira, era guztietako ekitaldiekin. Zelatunera egindako mendi ibilaldiarekin eman zioten hasiera aurtengo edizioari. Atzo, berriz, Tolosako Herri Krosaren abiapuntu eta helmuga izan zen auzoa bera.

Hala ere, bihurtik aurrera, jai giro handiagoa izango da bertan. Arratsaldeko pintxo-potean ongietorria egingo diote Estebanari, auzoko erraldoiari. «Gurea landa auzoa ere badenez, emakume baserritarrak omentzen dituen pertsonaia da», azaldu du Oihana Santxez Ttontor kultur elkarteko kideak.

Ostiralean, klasikoetan klasi-koena den patata tortilla lehiaketa egingo dute, eta iluntzean,

umoreari egingo diote tokia. Larunbatean, batez ere, haurrentzako moduko ekitaldiak prestatu dituzte. Gauean, Distopia elektrotxarangaren emanaldiaz gozatzeko aukera izango da. «Auzotar gazteei egitarauan esku hartzen utzi diegu, kultur astearen dinamikan sartzen joan daitezten, eta euren ideia izan da talde hau gonbidatzea».

Azkenik, igandea, musikaz alaitutako eguna izango da, eta aurtengo berrikuntza nagusia ere egun horretarako prestatu dute. Igande eguerdian, zuhaitz bat landatuko dute parkean, hildako auzotarren omenez. «Haritz bat landatuko dugu, auzoarentzat memoriarako gordeta geratuko dena».

Arestian aipatutako gazteen ekimenarekin «oso pozik» agertu da Santxez. «Nik 33 urteak bizi izan ditut hemen, eta oraindik lotura estua dut auzoarekin. Larunbat gauekoa, beraz, inflexio-puntua izan daiteke. Hala ere, antolakuntzari dagokionez, belaunaldi aldaketa oraindik gertatzeke dagoela adierazi du.

EGITARAUA

Urriak 14, osteguna

19:00. Pintxo-potea Hiru-Aldeta tabernan eta auzo elkartearen.

Ordu berean. Estebania erraldoiari ongietorria auzoko txarangarekin.

Urriak 15, ostirala

19:00. XVIII. Patata Tortilla Lehiaketa.

22:00. Detritus Teatrus konpainiarekin, *Levantate y mea de pie*.

Urriak 16, larunbata

11:00-18:30. Tolobolei elkarteak antolatuta, III. 2x2 Bolei Txapelketa, Ferialekuan.

17:00. Haur jolasak eta tailerra, BOX-a elkartekoen eskutik.

18:00. Buruhandiak eta entzierroa zezen txikiek.

18:30. Txokolate edatea.

22:00. Distopia elektrotxarangaren emanaldia.

Urriak 17, igandea

9:00. Tolosako Udal Txistulari Bandaren diana.

10:00. Trikitilarien kalejira, auzoko baserrietatik.

11:00-12:00. III. 2x2 Bolei Txapelketa finalerdiak eta finala.

11:00. Radio Controleko autoen erakustaldia Ttorreko aparkalekuan.

11:30. Hildako auzotarren aldeko zuhaitz landaketa parkean, auzoko txarangak alaituta.

22:00. Auzoko babarrun jatea.

Ondoren. Dantzaldia eta karaokea, Joxe Jabier Mendizabalen eskutik.

Atsedendian. Toka txapelketa.



Berazubi auzo elkarteko kideak paella erraldoia prestatzen auzoko plazan, auzotarren begiradapean. J. ARTUTXA

Paella erraldoia, arrakasta handiko jaiak borobiltzeko

Bost egunez luzatu diren jaietako azken egunean, otordu ederra egin dute auzotarrek; Leire Alonso nagusitu da toka txapelketan eta arratoia errez amaitu dituzte festak

J. Artutxa Dorronsoro

7 kilo arroz, dozenaka oilasko pusketa eta era guztietako barazkiak. Guzti hori mimo handiz eta denbora luzez ondo kozinatu, eta 100 bizilagunentzat prestatu zuten Berazubi auzo elkarteko kideek. Izan ere, atzo, auzoko jaien azken egunean, paella erraldoiak erakarri zituen begirada guztiak.

Aurrez, emakumezkoen toka txapelketa jokatu zuten eta Leire Alonso izan zen onena. 24 jaurtiketetatik, hamarretan jo zuen burdinean. Harrituta utzi zituen auzotarrak, eta hauek txalo sorta ederra eskaini zien saioa amaitu zuenean. Alonsok, beraz, merezimendu osoz irabazi zituen txapela eta garaikurra.

Paella erraldoia amaitu zute-nean, auzotarrek zain zuten Pancho Balbuena abeslaria. Doinu mexikarrez girotu zuen auzoa, eta berarekin batera abestera aursartu ez zirenek, gorputza mugitzeko aukera izan zuten, ondoren, areto dantzen saioa izan baitzen plazan. Txistorra janez eta

arratoia errez borobildu zuten eguna, eta ondorioz, baita aurtengo festak ere.

ASKATASUN HANDIAGOA

Hain justu, borobila izan daiteke aurtengo festak nolakoak izan diren deskribatzeko hitza. «Herriar ugari bildu da, batez ere, musika emanaldietan, eta beraz, oso pozik gaude festek izan duten erantzunarekin. Giro oso ona izan dugu», aitortu du Jose Anto-

nio Telleria auzo elkarteko kideak. Oraindik elkarteak balorazio orokorrik egin ez badu ere, auzotarren jarrera «bikaina» izan dela nabarmendu du.

Azken aldiz politikariek neurriak murriztu zituztenetik, Berazubi auzokoak izan dira Tolosan ospatu diren lehen festak. Hori dela eta, askatasun handiagoa izan dutela aitortu du. «Argi ikusi dugu herritarrak gogotsu zeudela», gaineratu du.



Goizean, Leire Alonsok irabazi zuen emakumezkoen toka txapelketa. J. A.

Mediterraneoko Kopan lehiatuko da Nahia Garrido

Tolosaldea IKTko igerilariak 100 eta 200 metro bizkar probetan parte hartuko du; txapelketara ere Joseba Zubeldia entrenatzailea joango da

Imanol Garcia Landa

Lehendabizikoz parte hartuko du Tolosaldea IKTko Nahia Garrido igerilari urretxuarrak nazioarteko txapelketa batean. Mediterraneoko Kopan izango da, ostiraletik igandera, Belgraden, eta Joseba Zubeldia taldeko entrenatzailea ere bertan izango da, Espainiako Selekzioko talde teknikoan, entrenatzaile laguntzaile bezala. Garridok 14 urte ditu eta maila horretako txapelketa izango da jokatu duena, 100 eta 200 metro bizkar probetan parte hartuz.

Mediterraneoko Koparako prestatzeko, irailean egonaldia egin dute Garridok eta Zubeldiak Espainiako selekzioarekin. Aurretik, apirilean beste egonaldi bat egin zuten, eta orduan «urduriago» zeudela azaldu du Zubeldiak: «Oraingo honetan lasaigo egon gara, eta hobeto aprobetxatu dugu. Giroa ere lasaigoa zen, eta oso ondo joan da. Bai gu bai eta egon diren beste guztiak ere pozik itzuli garela esango nuke». Garridok ere beste modu batera hartu du bigarren egonaldi hau: «Lehenengo aldian oso urduri joan nintzen, baina bigarrenengoan beste puntu batetik hartu nuen eta dena hobeto egiten hasi nintzen».

Espainiako selekzioan gazte mailako hautatzailea aldatu egin dute, eta egonalditik «oso sentazio ezberdinekin» etorri direla azaldu du Zubeldiak: «Bai aurrekoarekin bai orain dagoenarekin oso harreman ona izan dugu, baina hautatzaile berriak ikuspegi ezberdina du». Aurrekoa igeri metro gehiago egitearen aldeko zen eta bere eskaera «gogorragoa» zela dio; berriak teknika landu du gehiago, eta igerilariak «estres gutxiagorekin» egon direla azaldu du. Zubeldiaren lana ere aldatu egin da egonaldi batetik bestera. «Aurrekoan hautatzaileak prestatzen zituen entrenamenduak eta guk horiek aurrera eramaten laguntzen genion. Parte hartzen genuen, baina ez gehiegi. Orain askoz gehiago parte hartzen utzi



Nahia Garrido eta Joseba Zubeldia, Tolosako Usabal igerilekuko harmailetan. I.G.L.

digute. Lau entrenatzaile geunden eta bakoitzari saioak zuzentzeko aukera eman zitzaigun, eta nik bi zuzendu nituen. Igerilariak asko ikasi dute, eta nik pertsonalki ere bai».

Garridok ere modu ezberdinean bizitu du: «Lehenengo aldian gehiago egin eta egin eta egin izaten zen. Egunero berdina. Eta bigarren egonaldian gauza honetaz edo beste horretaz oharatzeko, saiatzeko eta disfrutatzeke esaten ziguten. Eta alde horretatik begiratura askoz hobea izan da». Entrenamenduak lasaigo egiteko aukera izan dutela, eta sentazioa ezberdina izan dela gaineratu du igerilariak.

«PRIMERAKO JARRERA»

Nazioarteko proba batean lehen aldiz parte hartzeak erronka handia suposatzen duela esan

du Garridok. Zubeldiak gaineratu duenez, «alde batetik motibazio handia eta ilusio handia da horretara iristea, kontuan izanik gainera, denboraldi hasieran gaudela, eta garai honetan inoiz ez dugula lehiatu. Oso serio eta ehuneko ehunetan ari da prestatzen. Bestalde, hamalau urte izanik, kontuan hartu behar da horrelako lehiaketa batera joateak eragiten duen urduritasuna ere batzuetan kostatu egiten dela kudeatzen».

Garridoren asmoa «ondo pasatzea» da, eta tokatzen zaizkion probak «ondo egitea». Prestaketa horretara bideratu dute, hain justu, ahal den ondoen egitera. Ez dute erreferentzi handirik beste lehiakideen mailaz, beraz txapelketan zehar ikusten joango dira zer emaitza lortu daitezkeen. Mediterraneoko Kopan se-

lekzio indartsuenak Italia eta Frantzia izango direla azaldu du Zubeldiak, eta horren ondoren kontuan hartu beharrekoak Israel eta Turkia izango direla.

«Garbi duguna da Nahiak egin dezakeenean zentratu behar gara: gauzak ondo egin, teknika hobetu, esperientzia bizi eta ikasteko izan behar duela esperientzia honek. Noski ondo egin-go duela, oso ondo prestatzen ari delako. Azken aste hauetan erakusten ari den jarrera primerakoa da», esan du Zubeldiak. Txapelketaren ondorengo balantzea egiterakoan, beraz, lortutako emaitzari baino egindako lanari begiratu diotela azaldu dute.

Zubeldia bera ere joango da Mediterraneoko Kopara. «Poz handia hartu nuen esan zidatenean ni ere joango nintzela», esan du. Espainiako selekzioare-

kin lau entrenatzaile egongo dira eta igerilariak 18 inguru izango dira. Garridok azaldu duenez, gustura hartu zuen Zubeldia ere Belgradera joango denaren berria, horrek lasaitasuna ematen diolako.

Bestalde, Tolosaldea IKT taldeko igerilari bat nazioarteko mailan lehiatzeak «eskaileran beste maila bat igotzea» suposatzen duela dio Zubeldiak: «Aurreko denboraldian ikusi zen. Lehen Espainiako Txapelketara joaten zirenak, aurturtean finalean sartu dira eta beste domina bat lortu da ere. Puntan dabilzanak aurrera egin ahala, atzekoak aurrera doaz. Taldeari oso ondo etortzen ari zaigu motibazio bezala».

DOMINAK ETA MARKAK

Aurreko denboraldiari begiratu, 2020-2021, neguko eta udako infantilen Espainiako Txapelketetan lortu duena nabarmendu du Garridok: «Negukoan lau proba egin nituen eta horietatik bitan domina lortu nuen, bat brontzezkoa eta bestea zilarrezkoa, eta beste bietan ere ondo aritu nintzen. Udakoan bost proba egin nituen, eta horietatik bitan urrezko domina lortu nuen, eta beste hiruretan ere gustura geratu nintzen lortutakoarekin». Horrez gain, hamalau urteko mailan, Euskadiko markak hobetu ditu bai 100 eta 200 metro bizkarrean.

Urtea bukatu bitarte, igerileku motzeko absolutu mailako Espainiako Txapelketa izango dute Tolosaldea IKT taldekoek. Lehenengo aldiz hamar igerilari joango dira, inoiz baino gehiago, eta bai mutiletan zein nesketan erreleboko proban parte hartuko dute. «Hor ere taldeak eman duen saltoa ikusten da», esan du Zubeldiak.

Horrez gain, lehenengo aldiz Espainiako Kopan parte hartzeko izen ematea egin dute, kasu honetan, mutiletan eta bigarren mailan. Aurreko denboraldian egindako denborak kontuan hartzen dira eta sailkapen bat egiten da. Gipuzkoan klub bakarra dago parte hartzen duena Espainiako Kopan, Bidasoa, eta ohorezko mailan lehiatzen dira. Sailkapena atera berri da eta postu batengatik ez dute lortu sailkatzea, eta oraingoz ez dirudi alaketarik izango denik. «Sailkatzea lortu izan bagenu beste pauso bat izango litzateke taldearentzat», esan du Zubeldiak. Etorriko diren erronka berriei heltzeko, lanean jarraitzea tokatzen zaie Tolosaldea IKT taldeko igerilari eta entrenatzaileei.

Mikel Lizartza 40 kilora geratu da

Iñigo Merkaderrek 3.017 kilo pilatu ditu, Lizartzak 2.981,50; korrika tolosarra izan da azkarrena, baina segan egon da gakoa

Asier Imaz Tolosa

Urnietako Xoxokan jokatu zuten atzo goizean herri kirol apustua Iñigo Merkaderrek eta Mikel Lizartzak. Korrika ekin zioten desafioari, 6 kilometroko ibilbidea eginez. Hasieratik hartu zuen aurea Lizartzak, baina alde handirik atera gabe, Merkaderrek bere erritmoari bikain eutsi baitzion. Ondoren, ordu eta erdi osatu arte segan aritu ziren.

Segundo gutxiko abantailari segidan eman zion buelta Merkaderrek eta lehen saila aurretik moztu zuen. Tarte handitzea, ordea, kosta egin zitzaion. Lizar-

tzari kosta zitzaiona korrikatik segarako trantsizioa izan zen. Erritmoa ezin aurkitu ibili zen lehen minutuetan.

Hala eta guztiz ere, atzetik aurrerako lana egin zuen segan tolosarrak. Amaieran bera izan zen sail gehien moztu zituena, gutxi-gatik izan baldin bazen ere. Kiloek, ordea, alderantzizkoa erakutsi zuten.

Txartel gorri bat, hau da, 20 kiloko zigorra izan arren, hernaniarrak irabazi zuen apustua 3.017 kilorekin. Lizartzak 2.981,5 bildu zituen. 3.000 euroko jokoa, beraz, hernaniarrak irabazi zuen.



Mikel Lizartza eta Iñigo Merkader emaitza jakin ostean, atzo, Urnietako Xoxokan. A. IMAZ



Bi segalariak parean ibili ziren apustu guztian zehar, bai korrika eta baita segan ere. A. IMAZ

Markagailua iraultzetik gertu izan da Jaka

21-5 galtzen joan da lizartzarra Mikel Urrutikoetxearen aurka; 13 tanto jarraian egin ondoren 22-18 galdu du

A. Imaz Lizartza

Lau eta erdiko txapelketako lehen partida jokatu zuen atzo Erik Jakak, final-laurdenetako ligaxkakoa. Tolosako Beotibarren neurtu zituzten indarrak Baikoko bi pilotariek eta ikusgarria izan zen. Partidaren lehen zatian bizkaitarrak eman zion ikusgarritasuna lehiari. Ondoren, lizartzarra izan zen pilotalekua sutan jarri zuena, 21-5ekoa iraultzetik gertu izan baitzen.

Jakari jokoan sartzea kosta egin zitzaion, edo Urrutikoetxeak ez zion utzi. Jaun eta jabe izan zen bizkaitarra jokoan eta markagailuan. Partida erraz irabaziko zuela zirudien, baina orduan etorri zen Jakaren ikuskizuna. 16 tanto atzetik joan arren, ez zuen galdutzat eman lehia eta tantoz tanto artekariak ere zutik jarri zituen. 18-21ekoan, ordea, sakez falta egin zuen eta hortxe joan zitzaion partida, Urrutikoetxearen zoramenerako.



Erik Jaka eta Mikel Urrutikoetxearen arteko partida atzo jokatu zen Tolosako Beotibarren. A. IMAZ

Datuei begiratuta, 219 pilota-kada izan zituen partidak. Urrutikoetxeak hamalau egin zituen eta zazpi galdu. Jakak egindako-

ak hamaika izan zituen eta galdutakoak zortzi.

Ligaxkako hurrengo partida berriro ere Tolosako Beotibarren

jokatuko du Erik Jakak, urriaren 18an, astelehenean. Unai Laso izango da lizartzarraren aurkaria.



ASTEAZKENA, 2021EKO URRIAK 13
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 13

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Futbolistok ba-karrizketa Zuhaitz Gurrutxagarekin, Gurea antzokian, 19:00etan.

Asteasu. Gaubeltza. Itzalitako kalabazen berpiztea, Josu Ozaitarekin, udaletxean, 18:00etan.

Tolosa. Emakumeentzako jabetze eskola: Autoestimua, ahalduntzea eta emakumeen arteko aliantzak Pepa Bojorekin, kultur etxean, 15:30ean.

Tolosa. Death cafe: heriotzari buruz hitz egiteko topaketa, kultur etxean, 19:00etan.

Erakusketak

Tolosa. Oskar Tena tolosarraren Ondar, harri ta zerua, 3 tabernan.

Tolosa. Tolosan, Koronabirusaren hilabeteetan, Aranburu jauregian.

Tolosa. Galtzaundi aldizkariak 30 urte, Aranburu jauregian.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina.

15:00. Desafioa. Herri kirolak, Joxe Angel Sarasolarekin.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

20:00. (H)ari Naizela. Bertsolaritza saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:00. Musika zuzenean

11:30. Gaurkoan Tolosaldekin

17:30. Gaurkoan Tolosaldekin

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. 943 67 32 74.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Oso antzeko eguraldia izango dugu, berriro ere. Goizean behe-lainoa agertuko da, baina goiz erdirako jasoko du eta egun osoan zehar eguraldi eguzkitsua nagusituko da. Haizeak ekialdetik joko du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da, maximoak 18-19 gradura igoko direlarik.



Bihar. Giro eguzkitsuarekin jarraituko dugu. Goizeko behe-lainoa altza ostean, eguraldi eguzkitsua nagusituko da egun osoan zehar. Arratsaldean goihodei batzuk agertuko dira, baina ez dute inolako ondorioz ekarriko. Haizeak hego-ekialdetik joko du eta tenperaturak koxka bat egingo du gora. Maximoak 20-21 graduan kokatuko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Carlos Peña igerilari tolosarra 24 orduz aritu da igerian Oria ibaian, erizainek pandemia garaian egindako lana goraipatu asmoz; erronka zaila izan dela esan du, baina gustura geratu da gaindituta.

Erizainen lana eskertuz



Igerilari tolosarra erdian, erronka amaituta egin zioten harrera ekitaldian. AMAIA URBIETA / UROLA KOSTAKO HITZA

Erredakzioa Tolosa

Erionka berria gaintu du Carlos Peña igerilari tolosarra. Kasu honetan, Oria ibaian aritu da igerian, eta modu horretan, erizainek pandemia garaian egin duten lana eskertu nahi izan du.

Larunbat eguerdian hasi zen igerian Orioko Arraunetxe parean, eta itsasadarrean ibili eta gero, leku berean amaitu zuen 24 ordu geroago, igande eguerdian. Peñari eta lagun izan zituen bi

piraguitei harrera beroa egin zieten iristean. Peñaren emaztea, Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialeko presidente Pilar Lekuona, elkargoko beste hainbat erizain nahiz Orioko Udaleko ordezkariak izan zituzten zain, eta Peñari lore sorta eta aurrekua eskaini zizkieten. Lekuonak eskerrak eman zizkion Gipuzkoako erizain guztien izenean.

Heldu berritan, oraindik ere hotzez dardarka ari zela, zeharkaldia zer moduz joan zen azaldu zuen Peñak: «24 orduetatik hamabi argiarekin izan dira eta

beste hamabi argirik gabe. Horrek pixka bat konplikatu egin du erronka. Mareak oso indartsuak izan dira, ondorioz, jaitsi erraz egin gara, baina igotzeko, portu aldean bueltaka egon behar izan dugu». Zailtasunak zailtasun, «gustura» geratu zen egindako balentriarekin tolosarra.

Ez da igerilariak halako ekin-tza deigarria egiten duen lehen aldia. «Muturreko igerilari solidario» gisa izendatzen du bere burua, eta munduko bi errekor ere baditu bere lorpenen zerrendan.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

Prezioa

15,50€
31€
45€
51€

Atarikideek

12€
23€
33€
38€

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez